

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala****Diru-laguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoa aldatzea eta toki-garapenerako eta enplegurako diru-laguntzen lerro barri bat sartzea (1/2020-A.3 espedientea).**

Udalbatzak 2020ko uztailaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, honako erabaki hau hartu zan:

1. 2020-2023 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa aldatzea eta toki-garapenerako eta enplegurako diru-laguntzen lerro hau sartzea:

4. *Diru-laguntzak: toki-garapena eta enplegua*

1. Diru-laguntzen lerroa

Xedea: Laguntza hauen xedea Mungian ezarritako negozioei lotutako jarduera ekonomikoari eta enpleguari eustea da. Negozio horreek jarduera bertan behera ixtera behartuta egon dira, COVID kudeatzeko alarma-egoera deklaratzearen ondorioz.

Onuradunak: pertsona fisikoak (autonomoak eta/edo profesionalak, eta ondasun-erkidegoetako bazkideak eta nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilak) edo pertsona juridikoak, mikroenpresen barruan legez eratuak.

Helburuak Objetivos	COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoaren ondorioak arindu eta berehala jardutea, eta Mungiako udalerrian jarduera ekonomikoa sustatzea. Paliar y actuar de manera inmediata, ante las consecuencias derivadas de la crisis económica provocada por el COVID-19, e impulsar la actividad económica en el término municipal de Mungia.
Lortu gura diran ondorioak Efectos pretendidos	Mungiako herritarren interes orokorra babestea, COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoaren eragina gaitzeko eta, osasun-alarma amaitutakoan, udalerriko ekonomia ahalik eta arinen berpiztea lortzeko. Proteger el interés general de los ciudadanos y ciudadanas de Mungia, para minimizar el impacto de la crisis económica provocada por el COVID-19 y lograr que, una vez finalizada la alarma sanitaria, se produzca lo antes posible una reactivación de la economía del municipio.
Urteko kostua Coste anual	240.350,00 €
Funtzionala Funcional	2317-Covid 19
Finantziarazina Financiación	Finantziaketa funts propioakaz egingo da, aurrekontuaren IV. kapituluaren kargura. La financiación se llevará a cabo con fondos propios, con cargo al capítulo IV del presupuesto.
Diru-laguntza emoteko prozedura Procedimiento de concesión	Zuzeneko Directa

2. Aldaketa hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituan Legearen (TAOL) 70.2 artikuluan ezarritakoari jarraituta, Toki-gobernuaren modernizatze neurriei buruzko abenduaren 16ko 53/2003 Legeak erreformatua.

Mungian, 2020ko irailaren 23an. — Alkatea, Aguirre